

LANBIDE-GARAPENEN OHIKO DEIALDIA

MAILA ESKATZEKO JARRAIBIDEAK



Osakidetza

AURKIBIDEA

| | |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| I. DEIALDIAREN DESKRIBAPENA | 2 |
| 1. Lanbide-garapenaren ohiko deialdiaren ezaugarriak | 2 |
| 2. Lanbide-garapeneko ezohiko deialdian parte hartzeko baldintzak | 3 |
| 3. Lanbide-garapenaren mailak lortzeko behar diren zerbitzu-urteak eta emandako zerbitzuen zenbaketa..... | 4 |
| 4. Mailaketaren ondorioak eta ebaluazioaren ordainsari-ondorioak..... | 6 |
| II. ESKAERA EGITEA | 6 |
| 5. Eskaerak eta dokumentazioa aurkezteko epea..... | 6 |
| 6. Aplikazioan sartzeko pantaila | 7 |
| 7. Ohiko deialdian sartzeko pantaila | 8 |
| 8. Izena ematearen erlaitza | 10 |
| III. DEIALDIAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN ZERRENDAK | 12 |
| 9. Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda..... | 12 |
| 10. Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda..... | 12 |

I. DEIALDIAREN DESKRIBAPENA

1. LANBIDE-GARAPENAREN OHIKO DEIALDIAREN EZAUGARRIAK



Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpenaren bidez onartu da lanbide-garapenaren ohiko deialdia, Osasuneko Mahai Sektorialean 2021eko uztailearen 8an lortutako aurrekordiotik eratorria. Hain zuzen, ebazpen horren bitartez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren mendeko zerbitzu-erakundetako profesionalentzako 2023ko ekitaldirako lanbide-garapenaren maila esleitzeko ohiko deialdiaren baldintzak, eskaerak eta prozedura arautzen dira.

Deialdiaren xedea da eskaerak aurkezteko baldintzak, formak, epeak eta maila ebaluatzeko eta esleitzeko prozedurak arautzea, 2023ko ekitaldiko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko profesionalen ebaluazioaren eta lanbide-garapenaren ohiko deialdian.

Lanbide-garapenaren maila eskatzea aukerakoa da, eta lanbide-garapenaren aplikazioaren bidez egin behar da, esteka honetan:

<https://lanbidegarapena.osakidetza.eus>



Lanbide-garapenaren maila **eskatzeko epea** hilabete batekoa da deialdiari buruzko abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpena indarrean jartzen den egunetik aurrera; beraz, **epea otsailaren 27an hasiko da eta martxoaren 27an amaituko da.**

Profesional bakoitzak epe horren barruan egin behar du eskaera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Lanbide-garapena aplikazio informatikoaren bidez. Era berean, profesionalak Osasun Sistema Nazionaleko beste osasun-zerbitzu batzuetan edo beste administrazio batzuetan egindako zerbitzuak erregistratu eta egiaztatuko ditu, hala badagokio, curriculum vitae-aren aplikazioan. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzutik kanpo emandako zerbitzuak baliozkotuta dituzten pertsonak alegatutako zerbitzu berriak baino ez dituzte erregistratu behar, eta zerbitzu berri horiek baliozkotzeko behar diren egiaztagirak aurkeztu behar dituzte.

2. LANBIDE-GARAPENeko EZOHiko DEIALDIAn PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

| | Lan-egoera maila eskatzeko epean | Osakidetzan emandako zerbitzuak | Zein lanbide-taldetatik (LT) eska daitekeen maila |
|-------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------|
| Osakidetzan lanpostua duten langile FINKOAK, zerbitzu aktiboan | Aktibo egotea (edo senideak zaintzeko eszedentzian, genero-indarkeriagatiko eszedentzian edo zerbitzu berezietan) eskaera aurkezteko epean. | Osakidetzan urtebeteko benetako zerbitzuak, eskaera egiteko epea hasi aurreko hiru urteetan (2021-02-27tik 2024-02-27ra). | Langileak jabetzan duen lanpostuaren lanbide-taldea (jabetzako lanpostua). |
| Osakidetzan lanpostua ez duten langile FINKOAK, zerbitzu aktiboan | Eskaera aurkezteko epean aktibo egotea. | Osakidetzan benetako 3 zerbitzu-urte izatea, eskaera egiteko epea hasi aurreko hiru urteetan (2021-02-27tik 2024-02-27ra). | Langilea aktibo dagoen lanbide-taldea. |
| Langile EZ FINKOAK | Eskaera aurkezteko epean aktibo egotea. Enplegu Publikoaren Eskaintzaren azken prozesuan parte hartu behar izan dute, eta aukeratu duten kategoriako azterketa egin. Salbuespen gisa, ezinbesteko arrazoiren batengatik interesduna ez bazen probara aurkeztu, baliteke lanbide-garapeneko eskaera kontuan hartzea, betiere probara aurkezteko eskabidea egin bazuen. | Osakidetzan benetako 3 zerbitzu-urte izatea, eskaera egiteko epea hasi aurreko bost urteetan (2019-02-27tik 2024-02-27ra). | Bost urtez zerbitzuak eman izana lanbide-garapena lortu nahi den kategorian. |

3. LANBIDE-GARAPENAREN MAILAK LORTZEKO BEHAR DIREN ZERBITZU-URTEAK ETA EMANDAKO ZERBITZUEN ZENBAKETA

Hona hemen lanbide-garapenaren mailak **eskatzeko behar diren zerbitzu-urteak**:

| I. MAILA | II. MAILA | III. MAILA | IV. MAILA |
|--------------------|---------------------|---------------------|---------------------|
| 5 urte edo gehiago | 11 urte edo gehiago | 18 urte edo gehiago | 25 urte edo gehiago |

Lanbide-garapenaren maila lortzeko behar diren zerbitzu-urteak zenbatzeko, 2023ko abenduaren 31ra arte emandako zerbitzuak hartuko dira kontuan.

Maila lortzeko behar diren zerbitzu-urteak kalkulatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:

Azaroaren 22ko 395/2005 Dekretuaren, otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuaren eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuaren 5. artikuluan eta ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuaren eranskinaren 5. apartatuan, honako baldintza hauek ezartzen dira lanbide-garapeneko maila ebaluatu eta aitortzeko deialdi honetan parte hartzeko:

1.– Osakidetzan zerbitzuak benetan ematen direla egiaztatzea, honako zehaztapen hauen arabera:

a) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lanpostua jabetzan duten langile finkoek edota behin-behineko birlaneratze-egoeran dauden langile finkoek egiaztatu beharko dute, batetik, benetan ematen dituztela zerbitzuak Osakidetzan lanbide-garapeneko maila lortu nahi duten kategorian, bestetik, zerbitzu aktiboan edo senideak zaintzeko, genero-indarkeriagatiko edo zerbitzu bereziengatiko eszedentzian daudela eta, azkenik, zerbitzu horiek gutxienez urtebetez eman dituztela deialdiko eskaera-epea hasi aurreko azken hiru urteetan.

b) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lanposturik jabetzan ez duten langile finkoek, ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuak ezartzen duen bezala, egiaztatu beharko dute, batetik, benetan ematen dituztela zerbitzuak Osakidetzan lanbide-garapeneko maila lortu nahi duten kategorian eta, bestetik, zerbitzu aktiboan edo senideak zaintzeko, genero-indarkeriagatiko edo zerbitzu bereziengatiko eszedentzian daudela deialdiko eskaera-epea hasi aurreko azken hiru urteetan.

c) Finkoak ez diren langileek egiaztatu beharko dute gutxienez hiru urtez eman dituztela zerbitzuak Osakidetzan lanbide-garapena eskatzen duten kategorian berean. Zerbitzuak deialdia eskatzeko epea hasi aurre-aurreko bost urteetan emandakoak izan behar dira.

Finkoak ez diren langileek Enplegu Publikoaren Eskaintzaren azken prozesuan parte hartu behar izan dute, eta aukeratu duten kategoriako azterketa egin. Salbuespen gisa, ezinbesteko arrazoiren batengatik interesduna ez bazen probara aurkeztu, baliteke lanbide-garapeneko eskaera kontuan hartzea, betiere probara aurkezteko eskabidea egin bazuen.

2.– Bost urtez zerbitzuak eman izana lanbide-garapena lortu nahi den kategorian.

Emandako zerbitzuak kalkulatzeko, kontuan hartuko dira Osasun Sistema Nazionalean edo Europar Batasuneko estatuetakos osasun sistemetan antolamendu aldetik eta funtzionalki integratutako erakunde sanitarioetan zerbitzu aktiboan edo lanpostua erreserbatzeko eskubidea ematen duten antzeko egoeraren batean emandako denbora-tarteak.

a) Azaroaren 22ko 395/2005 Dekretuaren eta otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuaren bidez araututako profesionalen kasuan, honako hauek hartuko dira kontuan:

– Lortu nahi den mailari dagokion kategoriako (eta, hala badagokio, espezialitateko) edo lanbide-talde bereko beste kategorian batzuetako lanpostu funtzionalak betetzea, betiere lan hori egiteko lizentziadun edo diplomadun mailako titulu sanitarioa (edo baliokidea) eskatzen bada. Ez dira kontuan hartuko

Osasun Zientzietako espezialisten titulu ofizialak lortzeko prestakuntza-urteak, salbu eta zerbitzu berezietan izan badira.

– Osasun Sistema Nazionalari atxikitako erakundeetan edota ikerketa-zentro ofizialetan ikerlari gisa emandako zerbitzuak, baldin eta lizentziadun edo diplomadun mailako eta dagokion espezialitateko titulu sanitarioa (edo baliokidea) eskatzen duen lan-kontratuarekin badira.

– Etengabeko arretako zerbitzurako langile kontratatu gisa emandako zerbitzuak.

b) Abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuaren arabera araututako profesionalentzat, honako hauek hartuko dira kontuan:

– Lortu nahi den mailari dagokion kategoriako edo beste kategoria batzuetako lanpostu funtzionalak betetzea, betiere lanbide-talde berekoak edo goragokoak badira.

– Osasun Ministerioaren 1984ko ekainaren 14ko Aginduan ezarritakoaren arabera "teknikari funtzioetako erizaintzako laguntzaile" gisa emandako zerbitzuak kontuan hartuko dira lanbide-garapenerako.

3.– Eskatutako maila lortzeko behar diren zerbitzu-urteak betetzea.

a) Kategorian emandako zerbitzuei (kategoria horretan gutxienez bost urte eman badira) Osasun Sistema Nazionalan edo Europar Batasuneko estatuetako osasun-sistema publikoetan emandako zerbitzuak gehitu ahal izango zaizkie, honako balio hauen arabera:

| SARBIDEA ZEIN LANBIDE- TALDE TATIK | EMANDAKO ZERBITZUEN BALIO HAZTATUA, TALDEEN ARABERA | | | | | | | | | | |
|------------------------------------------------|-----------------------------------------------------|------|-------|------|------|------|------|------|------|----|------|
| | A1 | A2 | B1 | B2 | C1 | G2 | C3 | D1 | D2 | D3 | E1 |
| A1 | % 100 | % 50 | % 50 | % 25 | % 25 | % 10 | | % 15 | % 10 | | % 10 |
| A2 | % 100 | | % 75 | | % 50 | | | % 25 | | | % 15 |
| B1 | % 100 | % 50 | % 100 | % 25 | % 50 | % 15 | % 10 | % 25 | % 10 | | % 10 |
| B2 | % 100 | | | | % 75 | | | % 50 | | | % 25 |
| C1 | | | | | | | | | | | |
| G2 | % 100 | | | | | | | % 75 | | | % 50 |
| C3 | | | | | | | | | | | |
| D1 | | | | | | | | | | | |
| D2 | % 100 | | | | | | | | | | % 75 |
| D3 | | | | | | | | | | | |
| E1 | % 100 | | | | | | | | | | |

b) Lortu nahi den lanbide-garapenerako mailari dagokion kategorian beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak % 50ean baloratuko dira, baldin eta, artikuluko honen 1. eta 2. apartatuetan ezarritakoaren arabera, egiaztatzen bada Osakidetzan ematen direla zerbitzuak benetan lanbide-garapenerako eskaera egiteko kategorian.

4. MAILAKETAREN ONDORIOAK ETA EBALUAZIOAREN ORDAINSARI-ONDORIOAK.

Dagokion mailan kokatzeak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta ondorio horiek data horretatik aurrera aitortuko dira ekonomikoki, maila eta lanbide-talde bakoitzerako urtero ezarritako zenbatekoen arabera, aurrekontu-legeen arabera.

Ebaluazioa negatiboa bada, profesionalak beste ebaluazio bat eskatu ahal izango du ebaluaziotik bi urte igaro ondoren, mailen behin betiko esleipenaren ebazpenetik zenbatzen hasita.

II. ESKAERA EGITEA

5. ESKAERAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA

Lanbide-garapenaren maila eskatzeko epea hilabete batekoa da deialdiari buruzko Ebazpena indarrean jartzen den egunetik aurrera; beraz, epea otsailaren 27an hasiko da eta martxoaren 27an amaituko da.

Profesional bakoitzak egin beharko du eskaera, epearen barruan. Horretarako, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren lanbide-garapeneko **aplikazio informatikoa** erabili beharko da (<https://lanbidegarapena.osakidetza.eus> helbidean eta Osakidetzaren webgunean dago erabilgarri).

Lanbide-garapeneko maila lortzeko zerbitzu-urteak **2023ko abenduaren 31ra arte emandako zerbitzuak aintzat hartuta** zenbatuko dira, eta Osakidetzan, Osasun Sistema Nazionalean edo beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak baino ez dira kontuan hartuko horretarako; hori dela eta, eskaera egiteko epean, **bakar-bakarrik aurkeztu behar dira Osasun Sistema Nazionalean edo beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak, baldin eta Osakidetzak dagoeneko balidatu EZ baditu.**

Emandako zerbitzu berriren bat alegatu behar izanez gero, honako hauek egin beharko dituzu:

- CV aplikazio informatikoan erregistratuta badaude, baina ez baduzu aurkeztu emandako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiria edo kopia konpultsatua, eskaera egiteko epearen barruan aurkeztu beharko duzu zure zerbitzu-erakundeko Langileen Sailean.
- CV aplikazio informatikoan erregistratuta ez badaude, aplikazioan erregistratu beharko dituzu eta emandako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiria edo kopia konpultsatua aurkeztu beharko duzu eskaera egiteko epearen barruan, zure zerbitzu-erakundeko Langileen Sailean.

Dokumentazio horren jatorrizko agiriak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira, eta, konpultsa horretan, data, izen-abizenak eta konpultsaren arduradunaren sinadura irakurgarria jaso beharko dira. Osakidetzak EAEn ofizialak ez diren hizkuntzetan aurkeztutako dokumentuen zinpeko itzulpena eskatu ahaliko die interesdunei.

Zerbitzu aktibokoa ez den beste egoeraren batean daudenek edota CV aplikaziorako sarbiderik ez dutenek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko edozein zerbitzu-erakundetan edo Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren egoitzan aurkeztu beharko dute dokumentazio hori, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezarritako bideen bitartez.

6. APLIKAZIOAN SARTZEKO PANTAILA

<https://lanbidegarapena.osakidetza.eus> helbidean sartuta.

Osakidetzaren intraneteko eta webguneko bannerretik.



Saioa hasteko orrian, erabiltzaileek aplikazioan sartzeko bi modu izango dituzte:

Osakidetzako profesionalak: NANaren eta Norbideko pasahitzaren bidez (Osakidetzako sistemetara sartzeko erabiltzen diren berberak).

Osakidetzako profesionalak eta profesional ohiak: Izenpe ziurtagiriaren bidez.

Identificación electrónica de Euskadi

Osakidetza solicita su autenticación.

Seleccione cuál de los siguientes medios de identificación desea utilizar:

- BAKQ** DNI/NIE, contraseña y coordenadas
DNI/NIE, contraseña y código SMS
- Certificados digitales**
- Cl@ve**

¿Cómo solicitar BAKQ?

Cancelar

Sartu aurretik, nahi den hizkuntza hauta daiteke pantailan.

Aplikazioan sartzen zaren lehen aldian, **erabilera-baldintzak** ikusiko dituzu, eta horiek **onartu** egin beharko dituzu.

Osakidetza

Desarrollo Profesional

ERABILERA-BALDINTZAK: LANBIDE GARAPENAREN APLIKAZIO INFORMATIKO BERRIA


XEDEA

Klausula hauen xedea da Lanbide Garapenaren Aplikazioa [surrerantzean DP] (© Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua, Vitoria-Gasteiz, 2020) Erabiltzeko Baldintzak ezartzea. Aplikazio hori erabiliko da Osakidetzako profesionalen lanbide-garapena eskatzeko, ebaluatzeko eta maila esleitzeko prozesuko nuklearri oia.

Acepto los términos y condiciones de uso de la Aplicación

Cancelar Continuar

Onarpenaren kontrol-laukia eta "Egin aurrera" botoia gai daitezzen, dokumentuaren amaieraraino jaitsi behar zara.



7. OHIKO DEIALDIAN SARTZEKO PANTAILA

Erabilera-baldintzak onartu ondoren, pantaila honetara helduko zara. Hona hemen pantaila horren atalak:



Goiburua

Aplikazioaren goiburuan, erabiltzailearen izena eta NANA agertzen dira, baita sarbide-rola adierazten duen ikonoa eta hizkuntza aldatzeko aukera ere. Era berean, menua agertuko da, nabigatzeko aukerekin.

Profesionalen rolaen goiburua:



Aplikazioaren hizkuntza:



Hizkuntzaren adierazlea goiburuaren eskuinaldean dago, eta aplikazioa zein hizkuntzatan ikusten ari zaren adierazten du. Hizkuntza aldatzeko, erabili nahi duzun hizkuntzaren inisialak sakatu behar dituzu.

Aplikazioaren menua




ikonoaren bidez, erabiltzailearen menuan sartuko zara. Hura sakatzean, alboko menu bat zabalduko da; menu horretan, menuaren aukerak eta aplikaziotik irteteko aukera izango dituzu ikusgai.



Deialdien kudeaketa

Menuaren atal horretatik sartzen da deialdietara. Deialdi aktiborik ez badago, mezu hau agertuko da:




Erreklamazioak kudeatzeko erlaitza desgaituta dago.

Erabilera-baldintza orokorrak

Menuaren behealdean esteka bat dago erabiltzaileak onartutako aplikazioaren erabilera-baldintza orokorrekin. Pantaila horretatik, dokumentua deskargatu ahal izango da, baita baldintzak onartu ziren data ikusi ere.



"Irten" aukera sakatzean, aplikazioak saioa ixten du, eta abisu-pantaila bat erakusten du nabigatzailea ixtea komeni dela adierazteko.



Deialdiaren deskribapena

Deialdiaren deskribapenaren pantailatik deialdiarekin lotutako dokumentuetara eta lanbide-garapenaren lotutako Osakidetzaren webguneetara sar zaitezke:



Deialdia aktibo badago eta lanbide-garapeneko **maila eskatzeko epea ireki bada**, deialdian sartzea eskatu ahal izango duzu. Eskaera horren aurretik, mezu hau agertuko da:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 2425/2023 Ebazpenaren bigarren artikulua dioenez: «Lanbide-garapenaren mailaren eskaera aurkeztea borondatezkoa da, eta, eskaeran, interesdunek egiaztatu beharko dute deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela edo baldintza horiek eskaerak aurkezteko epearen barruan betetzeko moduan daudela.»

Ondoren, laukia hautatu behar dela dioen mezua agertuko da: «*Eskatzaiileak baieztatzen du eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla eta deialdian espresuki adierazitako baldintzak betetzen dituela, eta horiek dokumentatu ahal izango ditu, hala behar izanez gero.*».

Profesional bakoitzak **deialdian sartzeko aukera onartu** behar du deialdian sartu aurretik.

Sartzeko aukera sakatu ondoren, onarpen-data eta -ordua izango dituzu ikusgai.

Osakidetza | Lanbide-garapena

Deialdiaren deialdia

Deskribapena: 2425/2023 - Lanbide Garapeneko Deialdi Aruntak

Usteko epea: DEIALDIA EGINDA

Eskatzeko epearen hasiera/amaiera: 2024/01/01 - 2024/03/31

Egindako zerbitzuen epemuga: 2023/12/31

Deialdiaren ebazpena

Deialdiaren argibideak

Erantzukizuneko adierazpena

Lanbide-garapenari buruzko informazioa 1

Lanbide-garapenari buruzko informazioa 2

Lanbide Garapeneko 2425/2023 Deialdi Arunteko Ebazpenaren (abenduak 29koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena) dionaren arabera, Lanbide-garapenaren mailaren eskaera aurkeztea borondatezkoa da, eta, eskaeran, interesdunek egiaztatu beharko dute deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela edo baldintza horiek eskaerak aurkezteko epearen barruan betetzeko moduan daudela.

Eskatzaileak baieztatzen du eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla eta deialdian espresuki adierazitako baldintzak betetzen dituzela, eta horiek dokumentatu ahal izango ditu, hala behar izanez gero. *

Eskatu

«Eskatu» botoiari eman ostean, «Inskripzioa» erlaitzean sartuko gara.

8. IZENA EMATEAREN ERLAITZA

Deialdian izena emateko eskaera egin ondoren, ohar hau agertuko da Inskripzioa fitxan: «*Lanbide-garapeneko 2425/2023 Ohiko Deialdian izena emateko eskaera erregistratuta geratu da. Eskaeraren egiaztatzea lortu nahi baduzu, sakatu "Deskargatu Eskaeraren frogagiria" botoian. Deialdi honetan onartua izateko, 2425/2023 Ebazpenean (abenduaren 29koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena) ezarritako baldintzak bete beharko dira.*»

Osakidetza | Desarrollo Profesional

Detalle Convocatoria de Desarrollo Profesional

Convocatoria: 1184/2023 - CONVOCATORIA ORDINARIA

Inscripción

Aviso

La solicitud de inscripción a la CONVOCATORIA ORDINARIA 1184/2023 ha quedado registrada. Si desea obtener el justificante de la solicitud pulse el botón "Descargar Resguardo de Solicitud". La admisión en esta convocatoria está sujeta al cumplimiento de los requisitos establecidos Resolución 1184/2023, de 19 de junio, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Volver

Descargar Resguardo de Solicitud

Eskaeraren egiaztatzea lortu nahi baduzu, sakatu «*Deskargatu eskaeraren frogagiria*».



**IZENA EMATEKO ESKAERAREN EGIAZTAGIRIA, LANBIDE GARAPENERAKO
2425/2023 OHIKO DEALDIAN
JUSTIFICANTE DE SOLICITUD DE INSCRIPCIÓN DE DESARROLLO
PROFESIONAL DE LA CONVOCATORIA ORDINARIA 2425/2023**

Deialdia

Convocatoria:

2425/2023 - LANBIDE GARAPENeko DEIALDI ARRUNTA

2425/2023 - CONVOCATORIA ORDINARIA

| NAN | Langile-zenbakia | Profesionala | Izen-ematearen eskaeraren data |
|------------|-------------------------|---------------------|---------------------------------------|
| DNI | N.º Personal | Profesional | Fecha Solicitud de inscripción |
| | | | 2024.02.26 12:53:02 |
| | | | 26.02.2024 12:53:02 |

Honen bidez, eskatzaileak baieztatzen du egiazkoak direla eskabide honetan agertzen diren datuak, eta betetzen dituela deialdian berariaz adierazitako baldintzak. Datu horiek agiri bidez frogatu ahal izango ditu, hala eskatzen bazaizkio.

La persona solicitante confirma que son ciertos los datos que constan en esta solicitud y que reúne las condiciones expresamente señaladas en la convocatoria, pudiendo probar documentalmente los mismos, si le fueran requeridos

III. DEIALDIAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN ZERRENDAK

9. ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariak ebazpen bat emango du, eta, bertan, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartuko du, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Halaber, ebazpen horretan, hamar egun balioduneko epea emango du erreklamazioak aurkezteko eta eskabidea zuzentzeko. Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratuko da.

10. ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariak ebazpen bat emango du, eta, bertan, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartuko du, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratuko da.